

JON IARTZA
HETEL-en Lehendakariordea eta Gipuzkoako arduraduna
Vicepresidente de HETEL y responsable en Gipuzkoa.

# "Lanbide Heziketa gure pasioa da

# La Formación Profesional es nuestra pasión"

"LHKOAK GARA" ETA LANBIDE HEZIKETA GURE PASIOA DA. HORREK ERRAZTU EGITEN DITU GURE ARTEKO HARREMANAK. NIRE USTEZ, HARRO EGON BEHAR DUGU LHKO IKASTETXE PUBLIKO ZEIN ITUNPEKO GUZTIEN ARTEKO LANKIDETZAZ. EUSKADIKO BEREIZGARRIA DA HORI.

Neure aldetik, eta HETELen izenean, eskerrak eman nahi dizuet elkarlanean jardun dugun urte hauetan IKASLAN Gipuzkoako arduradunengan aurkitu dudan adeitasunagatik eta haiekin ditudan harreman onengatik.

Arlo eta ekimen askotan aritu gara urte hauetan elkarlanean, besteak beste:

- Lehen, bigarren eta hirugarren Lanbide Heziketako Euskal Planen garapenean.
- Lanbide Heziketa sistema integratua sustatuz.
- LANEKI Elkartea eratu eta Lanbide Ekimena proiektua garatuz.
- HEZKUNTEK Elkartea sortuz, Iparraldearen garapena bultzatuz.
- Orokorrean Herri honen garapen sozio ekonomikoaren aldeko lana ahalik eta hoberen egiteko bidea errazteko ahaleginean.

Konpetentzia izan gara, konpetentzian eta kooperazioan aritu gara, elkarrekin lehian eta elkar laguntza emanez, baina beti Herri honetako Lanbide Heziketa goratzen eta berritzen. Eta geroari begira ere garbi dago zenbat eta elkarlan gehiago orduan eta gehiago goratuko dugula gure herriko Lanbide Heziketa.

IKASLAN Gipuzkoak eta HETELek bereizgarri batzuk konpartitzen ditugula esatera ausartuko naiz, agian hauexek garrantzizkoenak:

- Euskal Herriko Lanbide Heziketarekiko konpromezua eta irrika.
- Elkarte bakoitzak egindako lanari begira elkarrenganako errespetu eta errekonozimendua.
- Elkarte bietako pertsonenganako hurbiltasuna eta atsegintasuna.

Espero dut gure arteko harremanak onak izaten jarraitzea, gutxienez, datozen 20 urteetan.

ZORIONAK! eta Herri honen Lanbide Heziketa berritu eta goratu dezagun!

EL HECHO DE QUE "SOMOS DE FP" Y QUE LA FORMACIÓN PROFESIONAL ES NUESTRA PASIÓN, FACILITA LAS RELACIONES ENTRE NOSOTROS, CREO QUE DEBEMOS DE ESTAR ORGULLOSOS DE LA COLABORACIÓN ENTRE TODOS LOS CENTROS DE FP TANTO PÚBLICOS COMO CONCERTADOS, QUE EN EUSKADI MARCA LA DIFERENCIA.

Personalmente y en nombre de HETEL tengo que agradecer la sintonía y la buena relación con todos los responsables de IKASLAN Gipuzkoa con los que hemos colaborado durante estos años.

Durante todos estos años, hemos trabajado conjuntamente en muchos campos e iniciativas:

- Desarrollo del primer, segundo y tercer plan de la Formación Profesional Vasca.
- Promoción de un sistema integrado de Formaciónb Profesional.
- Constitución de LANEKI Elkartea y desarrollo del proyecto Lanbide Ekimena.
- Constitución de HEZKUNTEK Elkartea, promocionandon el desarrollo de Iparralde.
- En general, intentando favorecer el camino que facilite el desarrollo económico y social de este país.

Hemos sido competencia, nos hemos movido entre la competencia y la cooperación, pero siempre renovando y elevando la Formación Profesional. Y mirando al futuro, está claro que cuando más colaboremos llevaremos a un mayor nivel la Formación Profesional de nuestro país.

Me voy a atrever a decir que IKASLAN Gipuzkoa y HETEL compartimos algunas características. Quizá éstas sean las más importantes:

- El compromiso y la pasión por la Formación Profesional.
- Respeto y reconocimiento mutuo hacia el trabajo de cada uno.
- Proximidad y buen trato con los integrantes de ambas asociaciones.

Espero que el buen rollo que existe entre nosotros logremos potenciarlo por lo menos los próximos 20 años.

¡Felicidades! Renovemos y elevemos la Formación Profesional de este país.